

## **Irizar i2e bi autobus %100 elektrikoen emaitza onak Londres**

**2015eko ekainaz geroztik Londres hirian dabilzan bi autobus %100 elektrikoen emaitza onen ondorioz, hitzarmen bat sinatu da, horren baitan egonik zerbitzua eta mantentze lanak egitea Londresko operadore pribaturik handiena den Go Ahead-entzat.**

Urte bat baino gehiagoz bi autobus horiek intentsitate handiko 507 linean zirkulatu dute, hau da, Waterloo Station eta Victoria Station lotzen dituen linean, eta baita 521 linean ere, Waterloo Station eta London Bridge Station lotzen dituenen. Datu operazionalak oso egoki bete dituzte eskatutako helburuak.

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat da maila lokalean zein Irizarreko pertsonak zuzenean eskainitako zerbitzua, ibilgailuen jarraipena egiteko, eta, alderdi horiei esker, Go Aheadek bi ibilgailu horiek bere flotan sartzea erabaki du.

Aldaketa horrekin, bi autobusek ordu gehiagoz egingo dute zerbitzua 108 linean, hau da, Stratfordeko Nazioarteko Geltokia eta Lewisham Geltokia lortzen dituen linean, izan ere, horrek baldintza desberdinak ditu operazioei dagokienez. Gainera, Irizarrek autobusen mantentze lan integrala eskainiko du.

Bi unitate horietako lehena TFLri entregatu zitzaion (Transport for London), “Clean Bus Summit” gailurraren testuinguruan, 2015eko ekainaren 29an Londresko Udaletxean. Bigarrena 2015eko uztailean entregatu zen.

*Richard Harrington Go-Ahead Londoneko zuzendariak dioenez, “gure kolaboratzaileekin elkarlanean, arrakastaz erakutsi dugu e-busaren teknologia dagoeneko jada ez dela etorkizuneko gai bat”. Hemen eta orain dago, Londresen bidaiatzen duten bidaiariei zerbitzu fidagarria eskaintzen. Harro gaude arlo honetan liderrak izan garelako, eta TFLrekin (Transport for London) eta oro har industriarekin lanean jarraitzeko asmoa dugu, industriarentzat zein etorkizuneko belaunaldientzat sortzen dituen onurak eskaintzeko. 2015eko uztailetik operatu ditugun Irizarreko autobus elektrikoek harrera ona izan dute gidarien zein bidaiarien aldetik”.*

Irizar e-mobilityko zuzendari Hector Olabegogeaskoetxeak honela baloratu du aldaketa: *“oso positiboa da, horrek esan nahi duelako horrelako operadore baten konfiantza gureganatu dugula eta beste urrats bat egin dugula pakete osatu bat eskaintzeko, zeinean sartzen baitira zerbitzu eta manten lan integrala, eta horrek berriro erakusten du Irizarrek duen ahalmena merkatu eta operadore desberdinen baldintza eta beharretara egokitzeko”.*

Bi autokarrek eskatutako espezifikazioak betetzen dituzte, 12m luze dira, eta ezaugarri nagusiak zoru baxu jarraitua eta bi ate bikoitz dira, atea nagusia arrapala elektrikoarekin. Motor elektrikoak 180 kW-eko potentzia du eta 282kWh-ko energia du biltegitatuta. Beraz, Londresko zirkulazio baldintzetan 160 eta 180 km artean egingo dituela aurreikusten da; halaber, bero-hotz unitate bat ere badute gidariaren gunerako, eta bandalismoaren aurkako itxitura osatua.

Barruko antolamendua oso zabala da, 26 eserlekurekin eta MUPentzako 1 lekurekin, eta guztira 60 pertsonarentzako edukia dute. Ibilgailuek Londres hiriko estandar guztiak betetzen dituzte floten kudeaketarako eta telemetriako sistema ontziratuetan.

### **Go Ahead London**

Go-Ahead London hiriko autobus konpainiarik handiena da, eta %24,1eko merkatu kuota dauka.. Gutxi gorabehera 7.300 pertsona enplegatzen ditu 17 herritan, batez ere Londres hegoaldean. Ibilgailuak guztira 2.400 autobus baino zertxobait gehiago dira, horiek artean daudelarik Londresko lehendabiziko ibilgailu guztiz elektrikoak.

Go Aheaden apustua operadore horiek UKn hiriko garraio publikoan etorkizun iraunkor baten alde egiten ari diren urrats irmoen barruan kokatzen da. Hauek dira euren autobus flotan sartu dituzten Europako teknologiako autobus %100 elektrikoak.

### **Irizar Taldea eta Irizar e-mobility**

Irizar Taldea enpresa talde bat da, autobusak eta autokarrak diseinatzen liderra eta erreferentzia eztabaidaezina elektronikan, komunikazioetan eta makina birakarietan.

2.600 pertsonak osatuta, bost autokar lantegitan garatzen du produkzio jarduera (Espainia, Maroko, Brasil, Mexiko eta Hegoafrika), eta beste bost konpainia ere baditu hainbat jarduera sektoretan, bere dibertsifikazio industrialerako politikaren fruitu gisa. Gainera, I+G zentro propioa du, helburutzat gure produktu eta sistemen ikerketa aplikatua eta garapen teknologikoa dituena.

1889an sortua, 125 urte baino gehiagoko historiarekin, Irizar talde sendoa da gaur egun, geografikoki eta industrialki dibertsifikatua eta etengabe hazten ari dena.

Irizar e-mobility Taldearen enpresa berria da; 2016an sortu zen eta bere jarduera da elektromugikortasuneko soluzio integralak eskaintzea hirietarako, bai ibilgailuei bai beraien osagai eta sistema nagusiei dagokienez.

Taldeko enpresa guztien ezagutza eta esperientzia elkartzen ditu, hiri mugikortasunerako soluzio osoak sortzeko: autobus %100 elektrikoak eta autobusen kargarako, trakziorako eta energia biltegitartzeko beharrezkoak diren azpiegitura sistema nagusiak. Denak %100ean

Taldearena den europar teknologiarekin diseinatuak eta fabrikatuak, eta Irizarren zerbitzuen kalitate eta bermearekin.

Produktuen gamaren barruan daude 10,8 eta 12 metroko hiri autobusak, 2014az geroztik dabilzanak, autobus artikulatuak edo biartikulatuak, baita hirietan zerbitzua emateko beste ibilgailu elektriko batzuk ere.

Irizar e-mobilityren BRTren prototipoa (Bus Rapid Transit), 18 metrokoa eta %100 elektrikoa, proba fasean dago iraunkortasun eta fidagarritasunari dagokionez, bezeroen artean banatu aurretik. Ahalmen handiko ibilgailu integrala Taldeak garatu du oso-osorik, eta merkatuan liderra izatera deituta dago, errentagarria, segurua eta fidagarria baita.

Irizar Taldearen asmoa da garraio garbi eta irisgarrien erabilera bultzatzea, ingurumen, ongizate eta pertsonen osasunaren alde egiten baitute, hiri ingurune hobeak sortzeko. Kutsadura akustikoa murriztearen alde egiten da, kostuak gutxituko dituzten kontsumo baxuen alde eta zero igorpeneko ibilgailuen alde. Gure lema, beraz, "for a better life" da.

Irizar e-mobilityk, sektoreetan dugun dibertsifikazio zabalari esker, giltza eskura erako proiektu bat eskaintzen dugu, bezeroen eskakizunen %100 betez. Azterketa energetikoak egiten ditugu bai operadorearen lineetan, autonomia optimoa bermatzeko autobusean sartu beharreko energia kualifikatzeko, bai baliabide eta azpiegituretan, eta, azterketa horiez gain, karga estazioak garatzeko aukera dago, obra zibila koordinatuta, eta flotak lainoan kudeatzeko sistemak eta finantzaketa paketeak ere eskaintzen ditugu. Proiektuak irauten duen bitartean, Irizar Taldea bezeroaren ondoan dago beti, hari laguntzen, ibilgailuen eta azpiegituren zaintza integrala eskainiz.

*Informazio gehiagorako:*

*Hector Olabegogeaskoetxea*

*Tel.: + 34 669272695*

*Posta elektronikoa: [holabe@irizar.com](mailto:holabe@irizar.com)*

*edo:*

*Ana Eceiza,*

*Posta elektronikoa: [aeceiza@irizar.com](mailto:aeceiza@irizar.com)*

*Tel.: + 34 667181833*